

## IRUNGO HISTORIARI BURUZKO “SERAPIO MUGICA” IKERKETA BEKA 2017

### DEIALDIA

#### 2.- ARAUDI ERREGULATZAILEA

Honako araudi hauek erregulatzen dute deialdi hau:

- Irungo historiari buruzko “Serapio Mugica” XV. Ikerketa Beka arautzen duten Oinari Orokorrek, 2017/06/13ko 112 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak.
- Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, hura garatzeko Araudiak eta bat datozen beste arautegiek.

#### 2. AURREKONTU KREDITUA

Emango den bekaren zenbatekoa 9.000 euro gordin izango dira.

1.0910.489.01.326.20 – Ikerketarako sariak, beka eta laguntzak, aurrekontu aplikazioaren kargura finantzatuko da.

#### 3. XEDEA

Deialdi honen xedea da bi urtean behin ematen den “Irungo historiari buruzko *Serapio Mugica* Ikerketa Beka” eskuratzeko eta emateko bidea arautzea.

Laguntza horren helburua da Historia arloko ikerketarako ohitura suspertzea, eta Irungo herriari buruzko historia alorreko azterketak bultzatzea.

#### 4.- ONURADUN IZAERA LORTZEKO BALDINTZAK

Laguntza hauetara aurkeztu ahal izango dira Irungo historia ezagutzeko edo bere iturri historikoak berreskuratzeko lagungarri gerta litezkeen jatorrizko argitaratu gabeko ikerkuntza proiektuak aurkezten dituzten pertsona guztiak. Ikertuko den gaia eta garaia aukeratzeko askatasun osoa izango du egileak.

Beka hau aplikatzeko eremutik kanpo gelditzen dira Beka hau arautzen duen Oinari Orokorren 4. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako batean sartuta dauden pertsonak edo erakundeak.

#### 5.- EMATEKO PROZEDURA

Norgehiagoka.

## 6. EPAIMAHAIAREN OSAKETA

Epaimahaikideak agintari publikoak edo Historiaren diziplinan aintzatespena duten pertsonak izango dira, eta honako kide hauek edo haiek eskuordetutako pertsonak osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea:

- Informazioaren Gizartea eta Herritarren Parte Hartzea arloko Ordezkariek; bera izango da epaimahaiko presidentea. Bere karguak berezko dituen arrazoiengatik ezin izango balitz bertan egon, idatziz azaldu beharko du, eta bere eskuduntzak Irungo Udaleko beste edozein kargu politikori edo teknikariri eskuordetuko dizkio.
- Luis de Urantz Kultur Taldea Irungo Kultur Elkarteko ordezkaririk batek.
- Historia arloko doktore batek UPV-EHUrekin lotua.
- Historia arloko doktore batek, Historialari-lkertzailea.
- Historian lizentziadunak:
  - Hondarribiko Udaleko liburuzainak.
  - Irungo Artxiboko arduradunak; gainera bera izango da mahaiko Idazkaria.

Epaimahaikideen izendapena Irungo Alkatearen ebazpenaren bidez egingo da, eta hautagaiei jakinaraziko zaie, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusten diren abstentzio eta ezespren ondorioetarako.

Epaimahaiak ahalmena izango du beharrezkotzat hartzen duen informazio osagarri oro eskatzeko hautagaiei, aurkeztutako ikerkuntza proiektuak behar bezala ulertu ahal izateko. Era berean, hala badagokio, Epaimahaiaren aurrean agertzeko eta Memoria-Sintesia azaltzeko ere eskatu ahal izango dio.

## 7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hasiko da, eta **2017ko irailaren 11n amaituko da.**

## 8.- PROZEDURA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Informazioaren Gizartea, Herritarren Parte hartzea eta Auzoak arloko Zuzendaritzaren egitekoa da diru laguntza hau emateko prozeduraren izapidetze lana. Alkate-Lehendakariaren egitekoa da, berriz, diru laguntza emateko prozedura hau ebaztea, Balorazio Batzordearen iritzia jakin ondoren.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkotzat jo

litekeen beste edozein errekurtsos gainera".

Epaimahai Kalifikatzaileak, Oinarri orokorrean aurreikusitako balorazio irizpideei jarraiki, **gehienez ere hiru hilabeteko epean emango du epaia, eskariak onartzeko data amaitzen denetik aurrera**. Epaia interesdunei jakinaraziko zaie.

Epaimahai Kalifikatzailea ahaldunduta geratzen da oinarri hauek interpretatzeko eta aurreko klausuletan esplizituki aurreikusi ez eta deialdiaren garapenean gertatu litezkeen gorabehera guztiak erabakitzeke. Era berean, saria esleitu gabe utzi ahal izango du egokitzat hartzen badu.

**Onuradunak idatziz jakinarazi beharko du Beka onartzen duela, eta beka eman zaiola jakinarazten zaion egunetik, gehienez ere, hogeitaz eguneko epean egin beharko du.**

## 9.- ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA

Eskaera, dagozkion datuekin eta dokumentazio osagarriekin batera, Irungo Udalaren [www.irun.org/sac](http://www.irun.org/sac) Egoitza Elektronikoa aurkeztuko da, edo Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako bideetako edozein erabiliz.

Eskaeraren aurkezpen elektronikoa erakunde eskatzailearen ordezkariak egin beharko du. Ordezkaritza hori honako hauen bidez egiaztatuko da:

- Halako gisa egiaztatzen duen ziurtagiri elektronikoa bidez, edo
- Irungo Udalaren Ordezkarien Erregistroan aldeztutako izena emanda.

Eskaera era elektronikoa aurkezteko, Herri Administrazioetako Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 11. artikuluan adierazten diren sinadura elektronikoko sistemetako bat erabiliz sinatu beharko da eskaera (NANe, IZENPE edo FNMT ziurtagiri elektronikoa, IrunTxartela...)

## 10.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerekin batera, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

- Ikerkuntza proiektuaren Memoria-Sintesia (gehienez 20 orri), honako hauek zehaztuz: proiektuaren oinarritzko ildoak, metodologia, analisi unitateak, erabiliko dituzten iturriak eta lana zein hizkuntzatan aurkeztuko den. Euskarri digitalean aurkeztu beharko da nahitaez.
- Hautagaiaren Curriculum vitae-a, honako alderdi hauek zehaztuta:
  - Prestakuntza (titulazioak, hizkuntzak, masterrak, graduondoko ikastaroak...)
  - Lan esperientzia (lanak, argitalpenak, sariak, bestelako bekak...)

Meritu horiek egiaztatzeke dokumentuak aurkeztu behar dira, horiek ere euskarri digitalean.

- Eskatzailearen lan egoeraren inguruko ziurtagiria.

- Ardurapeko adierazpena eta datuak kontsultatzeko baimena, Irungo Udalarari diru laguntzak eskatzeko eredu orokorraren arabera. Eranskin gisa joango da dagokion deialdian. *(Dokumentu hori ez da beharrezkoa aurkezpena egoitza elektronikoaren bidez egiten bada).*

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatugabea balitz edo oinarri hauetan eskatzen diren betekizunak beteko ez balitu, **hamar egun balioduneko** epean akats formalak zuzen ditzan edo beharrezko dokumentuak aurkez ditzan eskatuko zaio; eta esango zaio hala egin ezean eskaera baztertu eta artxibatu egingo zaiola beste izapiderik gabe; hori guztia, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

## 11.- LAGUNTZA ORDAINTEKO EGITURA

Honela egingo da diru laguntzaren ordainketa, dagozkion administrazio izapideak bete ondoren:

- Zenbateko osoaren % 30a, beka ematen denean, aurrerakin kontzeptuan.
- Zenbateko osoaren % 30a, beka emateko aldiaren erdialdera, egindako lana eta laguntza aldiaren amaiera arte egingo dena azaltzen dituen memoria aurkeztutakoan.
- Gainerako % 40a, bekaren indarraldiaren amaieran, emaitzak aurkeztu ondoren.

Bultzatu nahi den ikerkuntza lanaren izaera eta onuradunen -beti pertsona fisikoa- ezaugarri bereziak kontuan hartuta, ez da beharrezkotzat jotzen aurrerakin gisa egindako ordainketengatik onuradun horrek bermerik jartzea, betiere onuradunak bere obligazioak betetzen ez dituen araudian dagoen araudian diru laguntzak itzultzeari buruz xedatutakoaren kalterik gabe.

## 12.- LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA/ LANA ENTREGATZEA

Betiko bukatutako lana, euskaraz edo gaztelaniaz idatzia, Irungo Udalaren Egoitza Elektronikoaren bidez entregatu beharko da ([www.irun.org/sac](http://www.irun.org/sac)) edo aurrez aurre –euskari informatikoan- Herritarrek Atenditzeko Zerbitzuan (San Martzial kalea, 2), **2018ko urriaren 31n beranduenez**.

Lanarekin batera aurkeztu beharko ditu, alde batetik, haren laburpena eta, bestetik, edukiaren inguruan ideia argia eskaintzen duten eta hura dokumentuen datu basean sartzeko aukera ematen duten deskriptoreak.

Salbuespenezko kausa batengatik egileak bere ikerkuntzan funtsezko aldaketak egin beharko balitu edo aurreikusiko balu lana ezin duela amaitu aurrez finkatutako epeetan, Artxibo Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, behar bezala arrazoitutako eskaeraren bidez. Horrelakorik gertatuz gero, berriz deituko da Epaimahai Kalifikatzailea, eta hark, gertatzen diren inguruabarrak baloratuta, baietsi edo ezetsi egingo ditu aldaketa edo luzapen horiek, eta, hala behar izanez gero, beste epe bat ezarriko du lana entregatzeko.

### **13.- PUBLIZITATEA/KOMUNIKAZIOA.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoa betez, udalak honako informazio hau bidaliko du Diru Laguntzen Datu Base Nazionalera:

- Beka hau arautzen duten oinarriak,
- Deialdia,
- Programa eta zein aurrekontu kreditutan kargatuko den, eta
- Bekaren xedea edo helburua

Era berean, deialdia erabakitzen denean, Udalak informazio hau ere bidaliko du Diru laguntzen Datu Base Nazionalera:

- Onuraduna edo onuradunak zein diren,
- Emandako eta egiaz jasotako laguntzen zenbatekoa, eta
- Hala badagokio, ezarri diren itzulketa edo/eta zehapen ebazpenak.